

Euskararen egoera Nafarroan

Jesus Atxa

Zenbait gogoeta euskararen egoeraz

Gaurko jardunaldiaren arian matazaten hasi aurretik, nire sentipentxo bat agertu nahi dizuet. Antolatzaileei nire baietza eman ondoren, eta jardunaldi hauen izenburuaz pentsatzen jarri besterik egin gabe, "EUSKARAREN EGOERA NAFARROAN", halako atzerakada edo bihurritasun bat barneratu zitzaidan.

Batean, "Nafarroa ama" dugula; bestean, "Lingua navarrorum" dugula euskara; hurrengoan Etxepare eta Axular direla, eta Xabier dela eta Campion, betiko txilinkatze horretaz ase samarra harrapatu ninduten.

Euskalerriko ume txikienak Nafarrak bagina legez, horrenbeste kutunkeria eta samurtasunek atzera eragiten zidaten. Ematen dit, maizegi, negar-muxinean gelditzen garaela Nafarroari begiratzekoan, "Erronkariko azken amona zahar euskalduna noiz hil